

Erretiro partziala eta errelebo kontratua gauzatzeko konpromiso akordioa

Errelebo kontratua, azken urteetan langileak partzialki erretiratzeko bitarteko baliotsua eta egokia izan da oso. Baina, orain arte kontratu hau gerta zedin gobernuak ematen zituen diru-laguntzak kendu egin ditu eta Zapateroren gobernuak 2011.urtean sinaturiko pentsio erreformak 2013. urtetik aurrera kontratu mota hau egin ahal izatea zaildu egin nahi du suposatuko duen kosteagatik. Gauzak horrela egonik, 2011. eta 2012. urtean kontratu honen bitartez aurrejubilatu daitezkeen langileak horrela egin ahal izateko borondatea jasotzen duen akordio bat sinatu dugu ikastoletako patronalek (Partaide eta EIB) eta ELA eta LAB sindikatuek.

Lehen bezala orain ere, erreleboa kontratua gauzatu ahal izateko beharrezkoa da ikastola bakoitzeko zuzendaritza eta langilea bat etortzea eta erretiro partziala gauzatzeko adostasunera iristea. Beraz akordio honek ezin du adostasun hau gauzatu behar duten parteetako inor behartu. Edozein modutara ere, akordioa baliotsutzat jotzen dugu, izan ere, bai ikastolen aldetik baita sindikatuenetik ere, 2012. urte bitarte ezarritako baldintzak betetzen dituzten langileak aurrejubilazio mota honen bitartez partzialki erretiratzeko ahailegin guztiak egingo direnaren borondatea jasotzen duela ulertzen baitugu.

ELA saiatu da langileen interesak modu argiagoan eta zehatzagoan jasoko zituen bestelako erredakzio bat adosten eta puntu guztietan ez bada ere batzutan lortu dugu. Ulertzen dugu azken emaitza honek, legeak markatzen dituen mugak kontutan izanik, errelebo kontratuak egiten jarraitzeko borondatea modu nahikoan jasotzen duela eta horregatik sinatu dugu. Akordioaren edukiak azpian irakur ditzakezue.

Dena den, aurrejubilazioak ikastolaz ikastola kudeatu eta landu egin beharko dira langilearentzat baldintzak ahalik eta onuragarrien gerta daitezen. Akordioaren sinatzaileek, ikastolaren batean aldean arteko irizpide ezberdintasuna gertatuz gero, gatazka konpontze aldera beren parte hartzea bermatuko dute.

Akordio hau sinatu behar izana beharrezkoa ikusi dugu langileen lan baldintzak defendatu nahi ditugulako baina "errelebo kontratua" arriskuan jartzen duen murrizketa politiken aurrean, lana eta borroka egin behar dugula ere garbi ikusten dugu.

Azken batez, gogoratu behar da ELA sindikatua beti egongo dela prest langileen lan baldintzak babestuz, langileentzako **benetan onuragarriak** diren akordioetara heldu eta sinatzeko.

Sinaturiko akordioa:

ERRETIRO PARTZIALA ETA ERRELEBO KONTRATUA

Egun, ikastoletako langileentzat erretiro aurreratua 1999ko irailaren 22an sinatutako Akordioaren araberrako baldintzetan ezinezkoa da bermatzea, honen oinarri legala eta ekonomikoa gobernu desberdinen jardunbidearen eskutik erabat aldatu baita. Horregatik, eta jabeturik **Ordezte eta Plantillak berrezteari buruzko akordioak** sektoreari ekarri dizkion onurak, garrantzizkoa da ikastolei eta ikastoletako langileei erretiro partziala gauza ahal izateko aukerak eta orientabideak eskaintzea:

- *Prozesua ikastolak, ordezkarri sindikalak edo 60 urte bete dituen langilearen ekimenez har daiteke. Erretiro partziala gauzatzeko **ezinbesteko baldintza da ikastola eta langilea ados egotea.***
- *Erretiratuko den langilearen lanaldi partzialeko kontratua (%25 edo %15) bete behar da, eta ezartzeko moduari dagokionean, errelebo kontratua sinatu aurretik lana egin behar den epea eta modua langilearekin adostea eta idatziz jasotzea premiazkotzat deritzogu.*
- *Partzialki erretiratutako langileari bere soldata garbiaren %75 gutxienez eta %100 gehienez ziurtatuko zaio arauzko erretiro-adina arte jasotzen duen pentsio eta kontratu partzialari dagokion soldata batuz. Lanaldi partzialeko % dagokiona ikastoletako Hitzarmenean bere lan mailarako hitzartutako igoeraren arabera eguneratuko da.*
- *Azpirarratu behar 2012ko abenduaren 31arteko aldiar ari garela.*
- *Ezinezkoa aurreikusten da langile denentzat irtenbide berdina, eta horren harira, garrantzizkoa da langile bakoitzari bere egoeraz beharrezko azalpenak ematea.*
- *Erretiro partzial horiek ezingo dute ikastolen bideragarritasun ekonomikoa kolokan jarri.*
- *Marko orokor honek bere aplikazioan ikastolaz ikastola bere egokitzen direnak eskatzen ditu, eta lanaldi partzial horien antolaketa pedagogikoari irtenbidea eman behar zaio.*
- *Akordio honen aplikazioan aldean artean irizpide ezberdintasuna egonez gero akordio hau sinatzen dutenen parte hartzea eska dezakete, honen erabakia bete beharrezkoa izango delarik.*